



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 28a

28. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Akats zuzenketa irizpenean (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus ditzan gaur egungo protokoloak eta bitartekoak, eutanasia arautzeko lege proposamenaren arau-garapenaren ondoren prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bitartekari lana egin dezan izaera sozialeko etxebizitza erosi ditzuten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten, heldu diren urteotan babes ofizialekoak izateari utziko dioten etxebizitzaren zentsu bat egin dezan eta etxebizitza sozialei buruzko araudia alda dezan. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da praktikaldia eta lekualdatze-lehiaketa egokitu ditzan amatasun edo aitatasun baja hartu duten praktiketako funtzionarioen egoerara. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratu dezan Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legea betetzeko. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki *Housing First* programarekin. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak 2020ko otsailaren 18ko adierazpenak publikoki zuzentzeko exigitzen baitie Madrilgo Erkidegoko lehendakariari eta bere alderdi politikoiari. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi eta babestu egiten baitu Santanderko Adierazpena. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Palestinako herriaren giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko kanpaina eta ekimen sozialekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak finantzaturako Nagen1000 eta Diana ikerketa-proiektuei, haien emaitzei eta Nafarroako herritarren arreta medikoan duten aplikazioari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, lehen sektorearentzako laguntzen deialdiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Itxarote-zerrenden Kontingentzia Planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, aurrematrikularen datuei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko arrazoiei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Gizarte Segurantzaren kudeaketa Foru Hobetzean ezarritako moduan bere gain hartzeari dagokionez Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, otsailaren 16an, “ETAk bortxaz lekualdatuen eta gizateriaren aurkako bere krimenen biktima guztien oroitzapen-eguneko” ekitaldian Nafarroako Gobernuak izan zuen ordezkartza instituzionalari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrari eta Lodosako ambulanzia berriari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- Galdera, 2015etik aurrera hizkuntza eskakizuna jarri zaien Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espeditteei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegei eta amianto-hondakinen biltegei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz Ministroen Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onetsitako lege proiektuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Zuastiko Zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, enplegu plana onesteko datari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, enplegu planaren prestaketari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (25. or.).
- Galdera, alokairuko etxebizitza babestuei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, nekazarietako eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berria onesteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearekiko jarrera bateratu bat zehazte aldera, Nafarroako Gobernuak, parlamentuko taldeek eta nekazaritza eta abeltzaintzako erakundeek osatutako lantalde bat sortzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (26. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.**

*AKATS ZUZENKETA IRIZPENEAN*

Akats bat aurkitu da 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenean, 2020ko otsailaren 25eko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena. Horrenbestez, honako zuzenketa hau egin da:

Azken xedapenetako hirugarrenean, honako hau dioen tokian:

“3. quater artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema”.

Honako hau esan behar du:

“3. quater artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin”.

Iruñean, 2020ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrius ditzan gaur egungo protokoloak eta bitartekoak, eutanasia arautzeko lege proposamenaren arau-garapenaren ondoren prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berrius ditzan gaur egungo protokoloak eta bitartekoak, eutanasia arautzeko lege proposamenaren arau-garapenaren ondoren prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

2020ko otsailaren 11ko Osoko Bilkuran aintzat hartu zen eutanasia arautzeko lege proposamena. Proposamenak gaixoaren autonomia definitzen

eta arautzen dituzten aurreko lege eta arauak osatzen ditu (Gaixoaren autonomia arautzen duen 41/2002 Lege Oinarrizkoa eta Aurretiazko jarraibideen erregistro nazionala eta Datuen fitxategi automatizatua arautzen dituen 124/2007 Errege Dekretua). Nafarroan, halaber, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko 8/2011 Foru Legea daukagu.

Gure ustez, horrelako konplexutasuna duen lege baten arau-garapenaren ondoren, behar den zuhurtasun guztiarekin, autonomia erkidegoei dagokie legea abiaraztea, osasun zerbitzuen zorro komunaren barruan, eta beraien zerbitzuetan ezartzea behar diren prozedurak eta bitartekoak.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko gaur egungo protokoloak eta bitartekoak berrius ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko programak indartu ditzan; hartara, legea zertan den eta lege horren mugak non diren azalduko die.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan.**

### *CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako osasun-garraioaren kontratua 2016ko abenduan bukatu zen; harrezkero, bidegabeko aberastearen salbuespenezko prozeduraren ematen ari da zerbitzua, salbu eta Zangozako eta Tuterako eskualdeei zerbitzu ematen dien osasun-garraioaren kontratua, bi urte baino gehiago daramana zerbitzu ematen, kontratua interes publikoko arrazoiak zirela-eta suntsiarazi ondoren, lizitazio berri baten zain. Zangozako eta Tuterako eskualdeetako osasun-garraioaren kontratu hori 2018ko abenduaren 31n bukatu zen, eta oraindik ez da kontratu berria lizitatu.

Uxue Barkosen Gobernuaren legegintzaldian zehar osasun-garraioari dagokionez sortutako ziurgabetasunak –larrialdiko osasun-garraioa publikoa izateko ahalegina, langileen subrogazioa dela-eta sortutako arazoak eta sektoreko enpresen eta langileen etorkizun badaezpadakoa barne– ondorio zuzenak izan ditu materialaren

arloko inbertsioan eta ibilgailuak aldatzeko erabakietan, eta lan-baldintzak eta herritarrei emandako zerbitzuaren kalitatea okertzea eragin du.

Arazo horiek are handiagoak izan dira Zangozako eta Tuterako eskualdeetan, non arazoak egon baitira zerbitzuari berari nahiz zerbitzuaren kalitateari dagokionez SGG enpresarekin kontratua egin zen unetik beretik.

2019ko martxoan, Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean iragarri zuen berehala eginen zela osasun-garraioaren lizitazioa (larrialdiko garraioa barne), internalizazioarekin ez jarraitzea erabaki baitzen, eta prestazio gehiago emanen zirela (Tuteran egunean hamabi orduko zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikor bat paratzea, kasu) lizitazioari itxaron gabe.

2019ko urrian, Osasuneko kontseilari Santos Indurainek Osoko Bilkura batean berriz ere iragarri zuen lizitazioa berehala eginen zela, baina oraindik ere ez da halakorik egin, eta Zangozako eta Tuterako eskualdeetan bere horretan daude osasun-garraioaren kalitatearen arazoak eta Tuteran ez da zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrik paratu.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du osasun-garraioaren lizitazioa berehala egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du Tuteran zainketa intentsiboen bigarren unitate bat berehala para dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du kalitatezko osasun-garraioaren zerbitzua bermatzeko ezarri beharreko neurriak berehala ezar ditzan, osasun-garraioaren kontratu berria esleitu arte itxaron gabe, bereziki Zangozako eta Tuterako eskualdeetan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Motz geratu da Hezkuntza Departamentuak 2020-2021 ikasturteari begira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ikastetxe publikoetan taxutu duen ikaspostuen eskaintza.

Aurrematrikula egiteko prozesuan, zeina orain dela gutxi bukatu baita, familiek hautatutako ikastetxe publikoan hasiera batean onartu gabe geratu dira zenbait ikasle.

Kontuan hartu behar da, urtero bezala, behin ikasturtea hasita eskabide berriak jasoko direla, ikaspostu bat beharko dutenak; hortaz, ikaspostu-erreserba bat egin behar da ikasleak artatzeko. Gauzak horrela, behar-beharrezkoa da egoera hori aurreikustea.

Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako 2019tik 2023ra bitarteko programa-akordioaren 3.1 atalaren 6. eta 7. puntuetan (Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna) honako konpromiso hauek jasotzen dira:

“– Eskola publikoa lehenetsi hezkuntza-sistemaren bizkarrezur gisa; haren ikastetxe-sarea aski izan dadila auzo eta eskualde bakoitzaren beharrezko erantzuteko. Hezkuntza-eskaintza

publikoa eta eskola-unitate publikoen kopurua handitu. Nork bere auzoan ikasteko aukera izatea ahalbidetu.

Ituntze-baldintzak berrikusi, eta bermatu, administrazioaren aldetik, itunpeko ikastetxe orok itunetan ezarritako eginbeharrak betetzen dituztela, funts publikoekin finantzatutako zerbitzu publikoa eskaintzen duten osagarria diren heinean. Horretarako, itunpeko sarearekin indarrean dagoen akordioa bultzatuko da eta haren jarraitzea egingen da, gardentasuna ziurtatzeko bai datuei dagokionez, bai ikastetxe horiek baliabide publikoak erabiltzen dituzten erari dagokionez ere.

Ez handitu itunpeko unitateen kopurua, eta hura gutxitu eskaera behar bezain handia ez denean”.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du irakaskuntza publikoa bultzatzean, halako moduan non onartu egingen baititu familiek hautatutako ikastetxe publikoan eta hizkuntza-ereduan eskolatzeko eskari guztiak; hartara, ikastetxe publikoetan gehitu beharreko eskola-unitate guztiak gehituko ditu, eskari guzti-guztiak asetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ikasgelako 25 ikasletik gorako eskariak dauzkaten ikastetxe publikoetan eskola-unitateak gehitu ditzan, eta ez dezan ikaslerik bidali itunpeko irakaskuntzara edo familiaren etxebizitzatik urrunago dauden ikastetxeetara.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu guztietan ikaspostu-erreserba bat egin dezan, ikasturtean zehar gertatzen diren eskolatzeko-erreserba berriak hartzeko.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Eleduna: Marisa De Simón Caballero

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bitartekari lana egin dezan izaera sozialeko etxebizitza erosi dituzten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten, heldu diren urteotan babes ofizialekoak izateari utziko dioten etxebizitzaren zentsu bat egin dezan eta etxebizitza sozialei buruzko araudia alda dezan.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bitartekari lana egin dezan izaera sozialeko etxebizitza erosi dituzten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten, heldu diren urteotan babes ofizialekoak izateari utziko dioten etxebizitzaren zentsu bat egin dezan eta etxebizitza sozialei buruzko araudia alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Azken egunotan jakin dugunaren arabera, Iruñeko zenbait auzotako familia asko gerta daiteke bere etxebizitza utzi behar izateko egoeran, zergatik eta bere etxebizitza jada babes ofizialekoa ez delako eta, horrenbestez, merkatu librekoa izatera pasatu delako, bai alokatzearen, bai salerosketaren ondorioetarako. Etxebizitza horiek orain dela urte gutxi batzuk erosi zituen Testa Residencial enpresak. Arazo hori bera beste erkidego ba-

tzuetan ere gertatu da, eta uste dugu behin betiko konponbide bat eman behar zaiola etorkizunean beste kasurik gerta ez dadin.

Etxebizitza duin bat izateko eskubidea eskubide subjektibo izatera igaro zen etxebizitzari buruzko 2018ko Legeko testutik aitzina, baina oraindik ere urratsak ematen jarraitu beharra dago, azaldu berri dugun eta familia askori eragiten dion arazok ongi asko erakusten duenez. Gure ustez, etxebizitzak herritarrak haietan egiazki bizitzeko tokiak dira, eta ez espekulaziorako elementuak, etekinak modu azkarrean lortzeko merkatu-objektu hutsak, dirua azkar eta besterik gabe irabazteko, krisi ekonomikoaren aurreko higiezinaren burbuilaren urteetan gertatu zen legez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bitartekari lana egin dezan azken urteotan izaera sozialeko etxebizitzak erosi dituzten enpresekin, etxebizitza horiek espekulaziorako erabil ez ditzaten.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zentsu bat egin dezan, heldu diren urteotan babes ofizialekoak izateari utziko dioten etxebizitzena.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etxebizitza sozialei buruzko araudia alda dezan, halako moduan non aurrerantzean egiten diren babes ofizialeko sustapenek ez baitute izaera hori galduko eta izaera hori izanzen baitute mugarik gabe, hartara ekidinen baita etorkizunean halako arazoak berriz ere gertatzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da dementzien arreta ezar dezan kronikoen programan.

Dementia lehentasuna da osasun publikoarentzat. Beraz, garrantzitsuak dira ebaluazioa, kontzientziarioa eta ekimenak abian jartzea ukitutako pertsonen beharrezanean erantzuteko, arriskuak gutxitzeko, diagnostikoa egiteko, tratamendurako eta arretarako, informazio-sistemarako, zaintzaileei babesa emateko, ikerkuntzarako eta berrikuntzarako.

Nafarroan 5.500 pertsonari diagnostikatu zaio dementia. Aurrerabideak aurrerabide, ukitutako pertsona asko dago oraindik diagnostikatu gabe (zenbait azterlanen arabera, % 50ekoa da azpi-diagnostikoa), eta horri gehitu behar zaizkio familia zaintzaileak, zuzenean ukitutakoak.

Dementzien arretan detektatutako beharrezanetako batzuk dira oinarrizko osasun laguntzako eta laguntza espezializatuko, erizaintzako eta

gizarte-laneko kontsultetako denbora falta. Hobetu egin behar da koordinazioa eta deribazio-bide argiak behar dira jokabide-nahasmenduak azaltzen direnean. Areagotu egin behar da laguntza espezializatuko erreferentziatzeko profesionalengainoko irismena pazientearen deskonpen-tsazio-kasuetan.

Gaur egun zenbait muga daude erreferentziatzeko berriazko unitateen eta profesionalen aplikazio praktikoan, oinarrizko osasun laguntzako sendagilearekin koordinatzeko. Azkenik, zenbait pazienteren bakardadeak zaildu egiten du horien osasunaren jarraipena egitea.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuak 2014/2020 aldirako sustatu duen Kronikoen Planeko dementzien atalaren ezarpena osa dezan, pertsonarentzako nahiz haren familiarentzako arreta hobetzeko beren ingurunean; hartara, haren beharrezan balorazio integrala eginen da, eta banakako laguntza-planak, beharrezan handiko pazienteentzako arreta-zirkuitu azkarrak (berezi, jokabidearekin lotutako arazoak), larrialdietatik pasatu gabeko ospitaleratzeak edo zainketa aringarriak ezarriko dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarrizko osasun laguntzako, ospitaleetako nahiz egoitza-zentroetako profesionalen prestakuntza etengabeko plan bat ezar dezan, gaixotasun horretan ohikoak eta funtsezkoak diren arazoei begira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio-sistemak gara ditzan, dementia duten pazienteen laguntza-prozesua, prozesuaren efizientzia eta segurtasuna hobetzen laguntzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du albat lasterren onets dezan Alzheimerraren 2019tik 2023ra bitarteko Plan Nazionala.

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da praktikaldia eta lekualdatze-lehiaketa egokitu ditzan amatasun edo aitatasun baja hartu duten praktiketako funtzionarioen egoerara.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita praktikaldia eta lekualdatze-lehiaketa egokitu ditzan amatasun edo aitatasun baja hartu duten praktiketako funtzionarioen egoerara.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da praktikaldia eta lekualdatze-lehiaketa egokitu ditzan amatasun edo aitatasun baja hartu duten praktiketako funtzionarioen egoerara.

Azken egunotan hezkuntzaren esparruko praktiketako funtzionario talde bat –oraintsu edo orain bertan amatasun bajaran egondakoa– izan dugu bisitan Nafarroako Parlamentuan. Emakume horiek talde parlamentarioengana jo dute zuzenean eragiten dien problematika, zeina azkenaldian

amatasun edota aitatasun baja hartu duten beste guraso batzuei ere eragiten baitie, azaltzeko.

Esan digutenez, kaltetuta gertatu dira egin den lekualdatze lehiaketan parte hartu ezin izan dutelako, amatasun bajaran zeudelako ezin izan baitute egin praktikaldia.

Lehiaketan parte hartu ezinak hainbat kalte ekarri die; esaterako, hurrengo lehiaketako postua galtzea, postua galdu delako destinatorik gogokoen hautatu ezin izatea, eta hautaprobak haiekin batera gainditu zituzten beste oposiziogile batzuen aldean antzinasuna galtzea.

Halatan, halako egoeretan Nafarroako araudia oso kaltegarria da beste autonomia erkidego batzuetako araudiaren aldean; izan ere, gehiengo batek –Andaluziak, Aragoik, Balear Uharteek, Kantabriak, Gaztela eta Leonek, Gaztela Mantxak, Kataluniak, Valentziak eta Euskadik– hiru hilabete eta egun batera murrizten du hautatu eta praktiketako funtzionario izendatutako izangaien praktikaldia; Madrilgo Erkidegoak, berriz, gehienez ere lau hilabete eta erdira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Hezkuntza Departamentuaren bidez hartu beharreko neurriak har ditzan, atzeraeraginez hartu ere, egindako praktikek puntuatu dezaten; hartara, praktikaldiko maisu-maistrek ez dute kalterik pairatuko emaitza jaisteagatik.

– Amatasun edota aitatasun bajaran dauden praktiketako funtzionario horiek egin beharreko praktikaldia murrizt dadin, beste autonomia erkidego batzuetan ezarritakoen parekoa izateraino.

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklarazioaren Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legea betetzeko.**

*GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklarazioaren Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legea betetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen hitzaurreak honako hau dio:

“... Memoria ezinbesteko tresna da hainbat balio gizarte osoan sustatu eta hedatzeko –askatasuna, begirunea eta tolerantzia, hain zuzen ere–, bai eta horiek hurrengo belaunaldiei transmititzeko ere.

Gertatutakoaren memoria transmititzen da artxiboetan gordetako agirien bidez, gertaera haieko protagonista eta lekuko izan zirenen ahotik, eta familien baitan gorde eta helarazten den erre-

latoan; irudiak, soinu grabaketak eta ikus-entzunezkoak ere transmisio bideak dira. Finean, memoria gureganaino iritsi diren arrasto ezberdinen bidez transmititzen da.

Baina halaber dira memoriaren transmisiorako bide gertaera latz eta tragiko haien gertalekuak: hilobi komunak, non milaka nafar ehortzi baitzituzten, desagerrarazi eta hil ondoren; bidegabeki espetxeratu eta errepresaliatutako milaka laguntzako giltzapetze-eremuak eta errepresio tokiak; edo herri-lanak, beren borondatearen kontra lan egitera behartutako presoek eraiki zituztenak, legez eratu eta herritarrek libreki aukeratu zuten Errepublika aldezteagatik zigorra jaso ondoren.

Horiexek dira Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak; izuarekin eta indarkeriarekin lotura duten tokiak, zeinetan giza eskubideen era guztietako urraketak egin baitzituzten zilegitasunez eraturiko boterearen kontra altxatu eta indarkeriara jo zutenek beren ideiak, ideologia eta proiektu politikoa defendatu eta inposatzeko bitarteko modura”.

Frankismoa bezalako erregimen diktatorial baten errepresioaz ari garenean –errepresioa nola gauzatzen den albo batera utzita–, ez gara exekuzioez, erailketez, indarkeriazko hilketez, desagereketez... soilik ari, ezpada bazterketa bortxatuz, atxiloketa arbitrarioez, zigor fisikoez, torturez, kargu politiko eta profesionalen garbiketez, zigor ekonomikoez edo tratu iraingarriez ere.

Iruñean, kasu, hainbat tokitan izan ziren gisa horretako gertakariak altxamendu militarretik hasi eta diktadura oso aurreratuta zegoen arte; baina baldin badago toki bat Nafarroako hiriburuan errepresio horren erdigunea izan daitekeena, hori bertako espetxe probintziala da.

Zoritxarrez, iragana baliatu behar dugu hartaz hitz egiteko; izan ere, espetxea botatzeko erabaki harrigarriak –ez zen inolako eztabaidarik ez inolako alternatibarik eskaini– herritarrei ebatsi egin die hura berrerabiltzeko edo hari beste esanahi bat emateko aukera bera, errepresio frankistaren biktimen oroimena bere baitan zeukan elementu gisa.

Espetxea –zeina Julián Arteagak eraiki baitzuen iragan mendearen lehen urteetan– amesgaizto bihurtu zen frankismoaren urteetan bertatik igaro ziren presoentzat, ez bakarrik askatasuna galtzeagatik, ezpada, batez ere, matxinatuek haien bizitzei buruz har zitzaketen erabakien ziurgabetasunagatik. Ez ditzagun ahantz egun haie-tan gertatu ziren ateratze ugariak; izan ere, askatasuna ematearen atzean sarritan heriotza-zigorra besterik ez zen ezkututzen. Presoen kamioiak eta autobusak edonorantz joan zitezkeen, eta halaxe joan ziren adibidez Iberora, Orgiko basora edo Valcaderako bazkalekura.

Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak (AFFNA-36) behin eta berriro eskatu du Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratzeko, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea betez.

Iruñeko Udalak iragan legegintzaldian jakin zuen espetxeko atea osatzen zuten harriak espetxe berrian gordeta eta desmuntatuta daudela. Udalaren Osoko Bilkurak 2017ko irailaren 7an erabaki zuen Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari eskatzea horiek eman diezazkion, eta idazkaritza nagusi horrek, honako hau erantzun zion, gutun bidez, Joseba Asiron Iruñeko alkateari: “... egia da eraikin zaharreko hondakin horiek espetxe berrian daudela, baina egia da orobat hondakin horiek baliatu nahi direla egungo instala-

zioetan –zehazki, espetxe berriaren atarian– Iruñeko espetxe eraitsiaren ataria berreraikitzeke, horretarako beta dagoen unean bertan”.

Gure ustez, Memoria Historikoa berreskuratzeko urratsak egiten jarraitu beharra dago, eta hori dela-eta honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuaren bidez Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratu dezan Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea (edo horren barruan zehaztu beharreko gunen bat), Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legea betez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuaren bidez Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari eska diezaión, Iruñeko Udalak bere garaian egin zuen legez, espetxeko atearen hondakinak eman diezazkion, espetxea egon zen lekuan jar daitezzen berriro.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeko Udalarekin lankidetzan albait lasterren jar dezan espetxeko atea orubearen barruan erabakitzen den lekuan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an

Foru parlamentariak: Jabi Arakama Urriaga, Bakartxo Ruiz Jaso, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki *Housing First* programarekin.**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki *Housing First* programarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezteko dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da e etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikarekin jarrai dezan, bereziki *Housing First* programarekin.

*Housing First* –etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko eredia– Estatu Batuetan laurogeita

hamarreko hamarkadan sortu zen, eta horren helburu nagusia da pertsona gizarteratzeko prozesuan lehentasunezko elementua bihurtzea etxebizitza; halatan, pertsonarekiko errespetuan eta haren autodeterminazioan oinarritzen den ekipo tekniko baten laguntza du.

Espanian, zenbait autonomia erkidegotan – besteak beste, Asturiasen eta Katalunian– programa hori bete-betean ari da jardunean, eta emaitza eraginkorak izaten ari da bazterkeria egoeran dauden pertsonak gizarteratzen. Nafarroak ere programa horren aldeko apustua egin du; izan ere, 2017an jarri zuen abian programa hori, eta emaitzak oso onak izan dira.

Nafarroako Gobernuari babesa ematen dioten alderdiek sinatutako programa-akordioak honako hau dio: “Gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonen etxebizitzari eusteko neurriak abiaraziko ditugu, bereziki landuz gizarte-laguntzan oinarrituriko berriazko neurriak”. Orain, paragrafo horretan esaten dena zehaztuz, azpimarra bazterkeriarik goreneko egoeretan jartzen duen programa bati buruz ari gara.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezteko dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza-politikaren aldeko apustua egiten jarrai dezan, bereziki *Housing First* programarekin, programa hori Nafarroa osora hedatuta.

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Ana Ansa Ascunce, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak 2020ko otsailaren 18ko adierazpenak publikoki zuzentzeko exigitzen baitie Madrilgo Erkidegoko lehendakariari eta bere alderdi politikoari.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak 2020ko otsailaren 18ko adierazpenak publikoki zuzentzeko exigitzen die Madrilgo Erkidegoko lehendakariari eta bere alderdi politikoari.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du erkidegoen arteko liskarra erabiltzea, eta, azkenik, pertsonen arteko liskarra argudio politiko gisa

erabiltzea, hori baita jardura politikoaren adierazpenik okerrera.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazi nahi die Leongo, Balearretako eta Kataluniako herritarrei, horiek izan baitira, nafarrarekin batera, Madrilgo Erkidegoko lehendakariaren irainen amaierako helburua”. (10-20/DEC-00014).

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi eta babestu egiten baitu Santanderko Adierazpena.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak berretsi eta babestu egiten du Bakea eta Askatasuna Sahara Mende-

baldean taldeartekoen XXIV. Konferentziak onetsitako Santanderko Adierazpena” (10-20/DEC-00015).

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Palestinako herriaren giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko kanpaina eta ekimen sozialekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Palestinako herriaren giza eskubideen errespetua ziurtatzeko eta, bereziki, Nafarroako enpresek

lurralde okupatuetan nazioarteko zuzenbidea betetzen dutela bermatzeko kanpaina eta ekimen sozialekin” (10-20/DEC-00017).

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gaixotasun Arraroen Mundu Egunaren ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gaixotasun Arraroen Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta horretarako egoitzako fatxada arrosaz argiztatuko du 2019ko otsailaren 29an.

2. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroan Gaixotasun Arraroek ukitutako Pertsonentzako Arreta Plana garatu eta ezartzea. Plana 2017an egin zen.

3. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gaixotasun Arraroen Erregistroaren jarraipena eta etengabeko eguneratzea bermatzea, horretarako behar adina baliabide emanez, bai Estatuko erregistroarekiko lankidetzeta eta koordinazioa ere.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gaixotasun arraroen ikerketa, diagnostikoa eta aholku genetikoa, medikuntza genomikoa eta doitasunezko medikuntza bultzatzea eta lehenestea, gaixoaren ikuspegia txertatuz.

5. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da gaixotasun arraroen diagnostiko goiztiarra hobetzeko neurriak ezartzea eta arretarako eredu integratu, integral eta sozio-sanitario bat bermatzea, gaixotasun arraroak dituzten pertsonengan eta haien familietan zentratua, ahal den neurrian, desgaitasunari aurrea hartuz eta autonomia sustatuz.

6. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du koordinazioa eta sarean lan egitea, bai gaixotasun arraroen arretan, bai ikerketan, eta

emaitzak gaixotasun arraroen arloan lan egiten duten beste erakunde eta ikerketa zentro batzuekin partekatzea.

7. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du beharrezko neurriak ezartzea diagnostiko goiztiarra bermatzeko, arretarako erreferentziazko zentro eta unitateetarako sarbidea bermatzeko eta ebidentzia zientifikoan oinarrituta egon eta gaixotasun arraroak dituzten pazienteei osasunean balioa emango dien berrikuntza diagnostiko eta terapeutikorako sarbidea bermatzeko.

8. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du hezkuntza, gizarte eta osasun arloko baliabideak behar adina hornitzea, hezkuntza erabat inklusiboa bermatzeko eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen beharrezko prestazioak eskuratzeko aukera bermatzeko.

9. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du elkarteen mugimenduari laguntza ematea eta desgaitasunari laguntzeko zentro eta zerbitzuetarako behar diren baliabideak bermatzea, Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldearekin (GERNA) eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen laguntzen dieten beste elkarte batzuekin lankidetzan.

10. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da gaixotasun arraroak dituzten pertsonen eta haien familiek bizi duten egoeraren inguruko gizarte sentsibilizazioa bultzatzea, baita osasun arloko profesionalen gaixotasun arraroetan prestakuntza ematea ere” (10-20/DEC-00016).

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak finantzaturako Nagen1000 eta Diana ikerketa-proiektuei, haien emaitzei eta Nafarroako herritarren arreta medikoan duten aplikazioari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak finantzaturako Nagen1000 eta Diana ikerketa-proiektuei, haien emaitzei eta Nafarroako herritarren arreta medikoan duten aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du,

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan otsailaren 12an, Cigudosa kontseilaria Carlos III.a Osasun Institutura joan zen bisitan, eta bertako zuzendari Raquel Yottirekin bildu zen. Kontseilariak IDISNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren egituraren garrantziaz, medikuntza pertsonalizatuan aurrera egiteko beharraz eta gobernu honen asmoaz hitz egin zion, bai eta Nafarroa arlo horretako erkidego aitziandari bihurtzeko asmoaz ere, Nafarroako Gobernuak finantzaturiko Nagen1000 eta Diana ikerketa-proiektuen emaitza bikainen ondorioz.

Azaldu ahal diguzu zeintzuk diren Nafarroako Gobernuak finantzaturiko Nagen1000 eta Diana ikerketa-proiektuak, bai eta proiektu horien emaitzak eta haiek Nafarroako herritarren arreta medikoan duten aplikazioa?

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **Galdera, lehen sektorearentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.**

### *MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, lehen sektorearentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen

Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira lehen sektorearentzako laguntzen deialdiak, nekazaritzako makineriaren eta ekipamenduaren erosketa, nekazari gazteen instalazioa, Nafarroako Ubidearen ureztaketaz bestelako nekazaritza-ustiategietako inbertsioak, Nafarroako Ubidearen jarduketa-eremuko ureztaketa-ekipamendurako inbertsioak, produktu berriak, praktika, prozesuak eta teknologiak garatzeari buruzko lankidetzaproiektu pilotuetarako laguntzak?

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, Itxarote-zerrenden Kontingentzia Planari buruzkoa.**

### *CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Itxarote-zerrenden Kontingentzia Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu legegintzaldiaren hasieran iragarri zenuen Itxarote-zerrenden Kontingentzia Planaren emaitza dela-eta?

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén



## **Galdera, aurrematrikularen datuei buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, aurrematrikularen datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

2020-2021 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea amaiturik, ezagutu dira haren datuak eta, horien arabera, hezkuntza publikoa ia ehuneko 3 hazi da aurreko ikasturtearen aldean.

Zer balorazio egiten du Hezkuntzako kontseilariak aurrematrikularen datuak direla-eta?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

## **Galdera, Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko arrazoiei buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Duela egun batzuk jakin dugu Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoak ingelesez ikasteko programa uzteko baimena eskatu duela, baina Hezkuntza Departamentuak kontrako txosten teknikoa egin du. Hori dela-eta,

Zer arrazoi izan ditu Hezkuntza Departamentuak Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

## **Galdera, Gizarte Segurantzaren kudeaketa Foru Hobetzean ezarritako moduan bere gain hartzeari dagokionez Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Segurantzaren kudeaketa Foru Hobetzean ezarritako moduan bere gain hartzeari dagokionez Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarrera du Gobernuak Gizarte Segurantzaren kudeaketa Foru Hobetzean ezarritako moduan bere gain hartzea dela-eta?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, otsailaren 16an, “ETAk bortxaz lekualdatuen eta gizateriaren aurkako bere krimenen biktima guztien oroitzapen-eguneko” ekitaldian Nafarroako Gobernuak izan zuen ordezkari itzaz instituzionalari buruzkoa.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, otsailaren 16an, “ETAk bortxaz lekualdatuen eta gizateriaren aurkako bere krimenen biktima guztien oroitzapen-eguneko” ekitaldian Nafarroako Gobernuak izan zuen ordezkari itzaz instituzionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehen lehendakariorde Javier Remírezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2015ean, otsailaren 11 ETAk bortxaz lekualdatuen eta gizateriaren aurkako bere krimenen biktima guztien oroitzapen-eguna izendatu zuen Nafarroako Parlamentuak. Horren kariatara aurtengo otsailaren 16an egin zen ekitaldian Nafarroako Gobernuaren ordezkari itzaz instituzionala egoteak zer edo nor gutxiagotzen ahal zuen?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **Galdera, Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrari eta Lodosako ambulanzia berriari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrari eta Lodosako ambulanzia berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2019ko martxoan, Osasuneko kontseilariak Tuterarako egunean hamabi orduko zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikor bat eta Lodosarako ambulanzia berria ezartzeko konpromisoa hartu zuen Osasun Batzordean, osasun garraioaren lizitazio berriari itxaron gabe.

2019ko urriaren 10ean, parlamentari honek Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari Osoko Bilkuran galdetu zion ea prestazio horiek ezarri behar dituen eta, hala bada, noiz, baina ez zuen erantzunik jaso.

Nafarroako Gobernuak noiz ezarriko du Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorra?

Nafarroako Gobernuak noiz ezarriko du beste ambulanzia bat Lodosan?

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, 2015etik aurrera hizkuntza eskakizuna jarri zaien Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, 2015etik aurrera hizkuntza eskakizuna jarri zaien Nafarroako Administrazio Publikoko lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Administrazio publikoko zein lanposturi jarri zaie hizkuntza eskakizuna 2015etik orain arte?

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espeditenteei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espeditenteei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 4/2015 Lege Organikoa, zeina "Mozal Legea" gisa ezagutzen baita, 2015eko martxoaren 26an onetsi

zen Kongresuan, garai hartan gehiengo osoa zuen PPren babesarekin eta oposizio osoaren arbuioarekin. Gaur egun, lege hori oraindik ere indarrean dagoenez, polizia kidego desberdinek, Foruzaingoa barne, aplikatzen jarraitzen dute eta, hori dela eta, zehapen-espeditenteei irekitzen eta isunak ezartzen jarraitzen da.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

– Zenbat zehapen-espeditente ireki dituzte Foruzaingoko agenteek Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik?

– Aipatu lege organikoa indarrean sartu zenetik igaro diren urteetako bakoitzean zenbatekoak izan dira zehapen-espeditente horien ondorioz ezarritako isunak?

– 4/2015 Lege Organikoaren 35.etik 37.era arteko artikuluetako zein apartatutan oinarritu dira ezarritako zehazpenak?

– Aipatu artikuluen apartatuetako bakoitzeko zenbat zehapen-espeditente ireki dira lege organikoa indarrean sartu zenetik?

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegiei eta amianto-hondakinen biltegiei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegiei eta amianto-hondakinen biltegiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Ingurumen baimen integratua duten zenbat zabortegi daude foru erkidegoan hondakin industrial ez-arriskutsuak jaso eta gorde ahal ditzaizketenak?

Oro har, zenbat hondakin industrial ez-arriskutsu gordetzen dira Nafarroako kudeaketa publiko nahiz pribatuko zabortegietan?

Kudeaketa publiko nahiz pribatuko zabortegiren batean gorde ahal dira amiantoa duten materialeko hondakinak?

Zenbat tona amianto-hondakin bota edo gorde dira Nafarroako zabortegietan 2004tik orain arte? Zenbat urte bakoitzean? Zein zabortegitan urte bakoitzean?

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz Ministroen Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onetsitako lege proiektuei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruz Ministroen Kontseiluak 2020ko otsailaren 18an onetsitako lege proiektuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Atzo, Ministroen Kontseiluak onetsi zuen Gorte Nagusietara igortzea transakzio finantzarioen gaineko zerga eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga sortuko dituzten lege proiektuak. Jakinarazi denez, bi tributu horiek Europako Batzordeak ezarritako eta nazioarteko beste erakunde batzuek aldezturiko ildotik doaz, zerga-sistema negozio-eremu digital berrietara eta globalizazioak dakarren mugaz gaindiko errealitatera egokitzeko, ez baitaude behar bezala islatuta egungo tributu-esparruan.

Bi tributu berri horiek aurreko legegintzaldian aurkeztu ziren jada, baina hauteskunde-deialdia dela-eta haien izapidetzea ezin izan zen amaitu.

– Transakzio finantzarioen gaineko zerga

Zeharkako zerga bat da, ehuneko 0,2ko tasa-rekin zergapetzen dituen sozietate espainiarren akzio-erosketarako operazioak, kontuan hartu gabe operazio horietan esku hartzen duten agenteen bizilekua, betiere kotizatutako enpresak badira eta sozietatearen burtsako kapitalizazio-balioa 1.000 milioitik gorakoa bada.

– Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga

Zeharkako zerga bat da, zerbait zerbitzu digital emateagatiko diru-sarrerak –balio erantsiaren gaineko zerga eta horren pareko beste zerga batzuk kenduta– zergapetzen dituen, ondoko kasuetan: online publizitatea, agertzen den gailua estatu espainiarrean dagoenean; erabiltzaileen arteko emateak edo prestazioak errazteko online bitartekaritza, haien arteko eragiketarako estatu espainiarrean dagoen gailu baten interfazearen bidez burutzen direnean; eta datuen transmisioa, lurralde berean dauden erabiltzaileek esku hartzen dutenean.

Nafarroak eta Estatuak sinaturiko Hitzarmen Ekonomikoaren 6. artikulua honela dio:

“Hitzarmen Ekonomiko honen aldaketa egiteko, hitzarmena egin eta onesteko erabilitako prozedura bera bete beharko da. Prozedura hori erabili beharko da, halaber, Nafarroako tributu araubidea Estatuak etorkizunean ezartzen dituen tributu berriekin harmonizatzeko. Estatuak zerga berri bat ezartzeko lege proiektu bat aurkezten duenean, Koordinazio Batzordea biltzeko deialdia egiten da, edo hark eskuordetzen duen azpibatzordea biltzekoa, Hitzarmena Estatuak ezarri nahi duen zerga berriarekin bat datorren ebaluatu eta azter dezan, Hitzarmenaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako prozedurarekin bat”.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1.- Nafarroako Gobernuak eskatu al du Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen bilera Estatuak informa dezan Transakzio finantzarioen gaineko zergari eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzko Lege Proiektuen edukiaz? Jaso al du erantzunik Estatuaren aldetik bilera hori egiteko?

2.- Gobernuak uste du bi zerga horiek Nafarroan ezar daitezkeela kontuan hartuta zeharkako zergak direla eta bi kasuetan Estatuak nahi duena dela Estatuak lurralde osoan gerta litezkeen zerga-egitateak zergapetzea, aintzat hartu gabe Foru Komunitateak arlo horretan izan ditzakeen eskumenak?

3.- Gobernuak uste du Nafarroaren interesetarako hobe dela zerga horiek Nafarroan ezarri beharrean Estatuarekiko negoziazio bat mantentzea, halako moduz non Foru Komunitateak konpentsazio bat jasoko lukeen Estatuak bildutako guztiaren ehuneko bat ordainduta?

4.- Gobernuak uste du ehuneko hori izan ahaliko litzatekeela Nafarroari aplikatzen zaiona, oro har, Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen Estatuaren zamekiko ekarpena egozteko, hau da, ehuneko 1,60koa?

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Zuastiko Zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Zuastiko Zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Iragan abenduaren 20an bilera bat egin zen Itzako udaletxean, eta bertan Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ahoz jakinarazi zien udal ordezkariari ordainleku bat jarriko zela AP-15etik sarbidean eta Zuastiko zerbitzugunearen ondoan dagoen atean; are gehiago, atea ixteko aukera ere aipatu zuen.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Kontseilari Saiz andreak nola hartu zuen parte Itzako Udaleko ordezkariekin iragan abenduaren

20an eginiko bileran, Nafarroako Gobernuo kide den aldetik edo Audenasako Administrazio Kontseiluko kide den aldetik?

2.- Gobernuak hartu al du gai horri buruzko erabakirik, Zuastiko zerbitzugunearen ondoko atean ordainleku bat jartzea proposatuta, edota Audenasaren erabakia izan da?

3.- Zergatik Gobernuak edo Audenasak ez du aintzat hartu ate horretan orain arte ordainlekurik ez izana aldatzeko erabakia hartzerakoan azken hogeita bost urteotan doakoa izan dela etenik gabe eta zeharo finkatu dela erabilera publikoa eta doakoa ?

4.- Audenasan edo Nafarroako Gobernuan egin al da azterlanik jakiteko ordainleku bat jartzeak puntu horretako trafikoan izanen lukeen eragina, enpresetan izanen lukeen eragin ekonomikoa edo Itzako eta inguruko herritarrengan izanen lukeena?

5.- Gobernuak uste du ordainleku hori jarri edo atea itxi baino lehen prozedura administratiboren bat jarri beharko litzatekeela abian, ukitutako toki entitateek eta erabiltzaileek, entzunaldi-izapidearen eta parte-hartzearen bidez, bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten?

6.- Zein da ordainlekuaren balizko ezarpenaren egungo egoera?

7.- Ordainlekua jartzekotan, nork hartuko luke horren kostua bere gain?

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Zein da eragile ekonomiko eta sozialekin Elkarriketa Sozialaren Kontseiluaren esparruan adostutako enplegu plana prestatu eta onesteko egutegia?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Isabel García Malo

---

## **Galdera, enplegu plana onesteko datari buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu plana onesteko datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Noiz onetsiko da Elkarriketa Sozialaren Kontseiluaren esparruan adostuko den enplegu plana?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Isabel García Malo



## **Galdera, enplegu planaren prestaketari buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu planaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Zer mahai bilduko dira eta zer edukirekin Elkarrietzeta Sozialaren Kontseiluaren esparruan, enplegu plana prestatze aldera? Zer epetan aurreikusten duzue mahai horiek biltzea?

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Isabel García Malo

---

## **Galdera, alokairuko etxebizitza babestuei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, alokairuko etxebizitza babestuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Alokairuko etxebizitza babestuei dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

Alokairuko etxebizitza babestuen zenbat promozio dagoen, haien kokapena eta promozio bakoitzaren etxebizitza kopurua adierazita, bai eta kasu bakoitzean babesa noiz amaitzen den ere.

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berria onesteari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berria onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du zertan den nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berriaren onspena.

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearekiko jarrera bateratu bat zehazte aldera, Nafarroako Gobernuak, parlamentuko taldeek eta nekazaritza eta abeltzaintzako erakundeek osatutako lantalde bat sortzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, NP Brekiko jarrera bateratua zehazte aldera, Nekazaritza Politika Erkidearekiko jarrera bateratu bat zehazte aldera, Nafarroako Gobernuak, parlamentuko taldeek eta nekazaritza eta abeltzaintzako erakundeek osatutako lantalde bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Nekazaritza Politika Erkidearekiko jarrera bateratu bat zehazte aldera, Nafarroako Gobernuak, parlamentuko taldeek eta nekazaritza eta abeltzaintzako erakundeek osatutako lantalde bat sortzeari buruz.

Iruñean, 2020ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



